

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bertizen aurkeztuko da heldu den igandean haren historiari buruzko liburu baten euskarazko berrargitalpena

Andoni Esparzaren lan hau da finkari buruz egin den ikerketa-lan bakarra

Ostirala, 2019.eko martxoak 8

Bertizko Jauregian eginen da heldu den igandean, martxoak 10, 12:00etan, Andoni Esparza Leibarren “[Bertizko jaureria](#)” liburuaren euskarazko berrargitalpenaren [aurkezpena](#).

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilari Isabel Elizalde arduratuko da ekitaldia aurkezteaz, eta oso-oso euskaraz eginen da. Jarraian, liburuaren egileak Nafarroako Oihan Ondareko Parke Naturala bihurtu den Jaurreriaren historiari buruzko hitzaldia emanen du.

Liburua 2000. urtean eman zen argitara lehenengo aldiz Bidasoa Ikerketa Zentroaren bitartez.

Nafarroako Gobernuak orratu eta bultzaturiko edizio berri honek finkari buruz egin den ikerketa-lan bakarrari balioa ematea du asmoa.

Bertizko Jaureria Bidasoa eskualdean kokaturiko 2.052 hektareako barruti biribila da. Horren lehendabiziko jabetza-aipamena XIV. mendekoa da, leinu-etxe gisa aurkezten duena. Argitalpen honek aukera ematen du finkak historian zehar izan dituen gorabeherak eta eskualdearen sozioekonomian izan duen garrantzia eta eginkizun estrategikoa ezagutzeko. Aipamen berezi eta zabala egiten die azken jabeei, Ciga-Fernandez senar-emazteei; horiek, Nafarroako Foru Erkidegoari eman zioten dohaintzan 1949an, Pedro Ciga hil zenean.

Andoni Esparzak zenbait iturri dokumental erabili ditu liburua osatzeko, baita Pedro Cigak berak eskuz idatziriko 28 orrialdeko koaderno bat ere. Argitalpena euskaraz edo gaztelaniaz eros daite parkean bertan



Liburuaren azala.

eta [interneten](#), Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Atalean.